

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak behin-behinekoz onartu du Endarlatsa eta Doneztebe artean Bidasoako bide berdeak kaltetu dituen ondasun eta eskubideen zerrenda

Doneztebe, Sunbilla, Igantzi eta Lesakako lursailen jabeek 15 egun baliodun dituzte alegazioak aurkezteko

Jueves, 04 de octubre de 2012

Nafarroako Gobernuak, Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui kontseilariak emandako foru-agindu baten bidez, behin-behinekoz onartu du ["Endarlatsa-Donztebeko zatian Bidasoaren lehengo trenbidea egokitzeko proiektua bide berde gisa erabiltzeko. 1. fasea"](#), eta hark kaltetutako ondasun eta eskubideen desjabetze-izapideari ekin dio.

Bertizko Turismo Partzuergoa da proiektuaren sustatzaile eta desjabetzeen onuradun.

Behin-behineko onarpen horren ondoren, 15 egun balioduneko informazio-aldi bat dago proiektuari alegazioak aurkezteko, eta haren dokumentazioa kontsulta daiteke: Sustapen Departamentuko Azterketa eta Proiektuen Zerbitzuko bulegoetan (San Ignacio etorbidea, 3. Iruñea) edo [bide berdearen zatiko](#) alde horretan kaltetutako lursailak dituzten udaletxeetan (Doneztebe, Sunbilla, Igantzi eta Lesaka), 27 bat kilometrotan zabaltzen dena.

Egun horiek igarota, kaltetutakoen behin betiko zerrenda jendaurrean jarriko da eta akordio-proposamena aurkeztuko da. Izapidea osatuta dagoenean, Bertizko Turismo Partzuergoak 2013ko udarako amaituta izango dela aurreikusten den obra lizitatu ahal izango du.

Proiektu sektorialak, haren proiektu eraikitzaileari dagokionez, honako jarduera hauek jasotzen ditu: zuloak edo hondoratzeak dauden zatiak saneatzea, tunelak egokitzea, zeharkako drainatzeak isurketako ura jasotzeko, bide eta bidegurutzak seinaleztatzea, bide berri bat egitea jarraipena galdu den zatietan eta, garrantzi handieneko obra gisa, behealdeko pasabide bat eraikitzea N-121-A errepidearen azpitik Lesakatik pasatzean.

Gogora ekarri behar da Foru Gobernuak jada aurtengo uztailearen 4an



Bidasoako bide berdea.

onartu zuela proiektua PSIS aitortzea; izapide horri esker, zati hori egokitu zitekeen turismo, kirol eta aisialdiko bide moduan segurtasunez erabiltzeko.